

Zaintza Sarea

ZER DA?

Zaintza Sarea **indarkeria matxista bizi izan duten eta bizi duten emakumez osatutako taldea** da eta sare bat eratzea du helburu; besteak beste, emakumeok bizi ditugun indarkeria matxista mota oro ikusarazteko eta horien aurrean **estrategia kolektiboak eratzeko**.

Emakumeok emakume izateagatik askotariko indarkeria matxista mota jazo ditzakegu: genero-indarkeria, familia barruko indarkeria sexista, sexu indarkeria zein jazarpen sexuala. Askotariko aurpegiak ditu indarkeriak eta, beraz, forma ugari har ditzake bortizkeria horrek; hots, psikologikoa, fisikoa, ekonomikoa edota soziala izan daiteke.

Indarkeria mota eta forma horiei guztiei aurre egin badiozu noizbait, aurre egiten ari bazara edo egoera horretan dagoen norbait ezagutzen baduzu, babesleku emozionalerako eta sozialerako espazio kolektiboa da Zaintza Sarea. **Maila indibidualetik harago, kolektiboan elkar zaintzeko espazioa, alegia.**



FUNTZIOAK

- Elkartzeko espazioa eskainiko da.
- Bizipenak, emozioak eta egoerak partekatzeko aukera egongo da, modu askean eta epaituak izan gabe.
- Ezinegonei hitzak jarriko dizkiegu.
- Ezinegon horien jatorria kokatuko dugu.
- Ezinegonei aurre egiteko estrategiak partekatuko ditugu.
- Beharrak azaleratzeko espazio bat eskaintzea eta guztien artean hauek asetzen saiatuko gara.
- Harremanak, lagunak eta sare sozial bat sortzeko aukera eskainiko da.
- Ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatuko dira.

MAIZTASUNA eta IRAUPENA

Bi astean behin, bi orduko saioak egiten dira. Ezinbestekoa da aldez aurretik izena ematea.

IZENA EMATEKO:

688 751 000 | 943 15 71 92

emakumetxokoa@azpeitia.eus

